



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**2024KO EKAINAREN 20AN**  
**EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Udalek izendaturiko ordezkariak**

**DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA**

**LEHENDAKARIA**

**Ordezkariek**

**Udalak**

**IZARO ELORZA ARREGI**  
**XABIER IGARTUA LOIDI**  
**MARKEL AZKARGORTA CID**  
**AINHOA LETE ZABALETA**  
**GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL**  
**JASONE GIRALDO MENENDEZ**  
**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**  
**GARIKOITZ ITURBE**  
**ION ALBIZU GONZALEZ**

**OÑATI**  
**OÑATI**  
**BERGARA**  
**BERGARA**  
**ARRASATE**  
**ARRASATE**  
**ESKORIATZA**  
**ARETXABALETA**  
**ARETXABALETA**

**Etorri ez direnak:**

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2024ko ekainaren 20an eguadiako 12:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamar ordezkari** bildu dira

**1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.

**2.- Dekretuen berri ematea.**

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.





### 3.- Elecnor, S.A. enpresari urte batez luzatzea Zaldibar eraikineko mantenu zerbitzua.

Ikusirik 2020ko uztailak 13an Debagoieneko Mankomunitateak ELECNOR, S.A. enpresarekin mantenuari dagokion zerbitzuaren kontratu sinatu zuela. Ikusirik kontratu horren iraupena 2 urtekoa zela, beste hiru urte luzatzeko aukerarekin

Prebentzio mantenua urteko prezioa: 4.085 €, gehi 857,85 €, BEZ %21. Guztira: 4.942,85 €.

Prezioa orduko, mantenu zuzentzailea: 26,56 €, gehi 5,58 €, BEZ %21 Guztira: 32,14 €. 2022an eta 2023an bi luzapen izapidetu dira, eta azkenengo luzapena onartzea proposatzen da, enpresa honek zerbitzuak egoki eman ditu eta.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da Elecnor S.A enpresari urte batez luzatzea Zaldibar eraikineko mantenu zerbitzua.

### 4.- Elorregiko autobus geltokiko markesina eta komuna garbitzeko garbiketa zerbitzua dela eta, administrazio pleguak, plegu teknikoak eta gastua onartzea.

#### **Kontratuaren xedea**

Kontratu honen xedea da Elorregiko biribilgunean dagoen Markesina eta bertan kokatuta dagoen komuna garbitzeko zerbitzua kontratatzea da.

Egunero egingo da garbiketa, Debagoieneko Mankomunitatea eta Bergara, Oñati eta Bergarako Udalek sinatutako hitzarmenean xedatutakoa betetzeko.

**CPV kodea: 9001.227.442.00.01.** Eraikinen garbiketa

#### **Kontratuaren premia eta egokitasunaaren justifikazioa**

#### **Baliabide urritasuna**

Mankomunitateak ez du baliabide eta gaitasun material eta pertsonalik zerbitzu hau emateko.

**Prozedura:** Irekia / Tramitazioa: Ohikoa

#### **Kontratuaren iraupena**

Kontratu honek bi urte iraungo ditu, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, gehienezko 4 urte bete arte. Luzapen hau kontratistarentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada aurretiko abisua.

#### **Kaudimen tekniko edo profesionala**





### **Bitarteko hauen bitartez egiaztatu ahal izango da kaudimen tekniko edo profesionala:**

Kaudimen teknikoa honako bide hauen bidez egiaztatuko da:- Azken hiru urteetan, gehienez ere, kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita.- Ingurumena kudeatzeko neurrien adierazpena: Garbiketa-produktuek I. motako etiketa ekologikoa izan beharko dute, hala nola Europako etiketa edo baliokidea. Esleipendunak garbiketa-produktu horien erosketa egiaztatzen duten azken hiru fakturak aurkeztu beharko ditu.

Kontratuaren zenbatekoaren finantzaketa egingo da honako kontu izendapenaren kontura: 2024ko aurrekontuko **9001.227.442.00.01.** partida.

### **Kontratua egikaritzeko baldintza berezia**

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze baldintza berezi hau exijituko da:

### **Izaera sozialdun baldintza berezia:**

Kontratu hau lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatu beharreko indarrean dauden lege xedapenak, arau xedapenak eta ohikoak betetzearen mende dago.

Lizitatuak adierazi egin beharko dute kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa zein izango den, kontratua esleituz gero. Era berean, Mankomunitateak kontratua egikaritzean langileei aplikatuko zaizkien laneko baldintzei buruz eskatutako informazio guztia emango du.

Esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategorian profesionalaren arabera, eta ez da inolaz ere hori baino kopuru txikiagorik ordainduko.

### **Kontratuaren gehienezko lizitazio prezioa eta balioaren zenbatespena**

Oinarritzko lizitazio prezioa 20.000 euro da, gehi 4.200 Euro (BEZ), guztira 24.200 Euro.

### **Proposatutako esleipen irizpideak. Justifikazioa**

Kontratua esleitzeko oinarri izan behar duten eskaintzak baloratzeko irizpideak eta hauen ponderazioa honako hauek lirateke:

- Proposamen ekonomikoa: 70 puntu.
- Balio-judizioen arabera kuantifikatzen diren irizpideak: 30 puntu. Antolaketa orokorra: 30 puntu, gehienez. Programa osatzen duten lanen xehetasuna, zerbitzua eta eragiketa garrantzitsuenak, horien maiztasuna, garbiketa, maiztasunak, garbiketa-ordutegia eta ordutegi-banaketa.

Puntuak bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da:

**LEHENA.** Elorregiko autobus geltokiko markesina eta komuna garbitzeko garbiketa zerbitzua dela eta, administrazio pleguak, plegu teknikoak eta gastua onartzea.





**BIGARRENA.** Euskadiko Kontratazio Plataforman lizitazioa argitaratzea, 15 eguneko epean enpresek eskaintzak aurkeztu ditzaten.

**5.- Elorregiko autobus geltokiko markesinan dagoen komun kimikoaren mantenuaren kontratazioari dagokionez, administrazio pleguak, plegu teknikoak eta gastua onartzea**

**Kontratuaren xedea**

Kontratu honen xedea da Elorregiko biribilgunean dagoen komuna mantentzeko zerbitzuak kontratatzea.

Astean bi aldiz emango da honako zerbitzu hau: konketan dagoen ur zikina xurgatzea eta ur garbiarekin eta produktu kimikoarekin betetzea, eta lababoa betetzea.

**CPV kodea: 90450000-6.** Hobi septikoa tratatzeko zerbitzuak

**Kontratuaren premia eta egokitasunaaren justifikazioa  
Baliabide urritasuna**

Mankomunitateak ez du baliabide eta gaitasun material eta pertsonalik zerbitzu hau emateko.

**Prozedura:** Irekia / Tramitazioa: Ohikoa

**Kontratuaren iraupena**

Kontratu honek bi urte iraungo du, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, gehienezko 4 urte bete arte. Luzapen hau kontratistarentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada aurretiko abisua.

**Kaudimen tekniko edo profesionala**

Azken hiru urteetan, kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuen exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak kontratuaren balio zenbatetsiaren %70 edo handiagoa izan beharko du. Horrez gain, honako hau egiaztatuko duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

**Finantzaketa partida**

Kontratuaren zenbatekoaren finantzaketa egingo da honako kontu izendapenaren kontura:

2024ko aurrekontuko 9001.227.442.00.56 partida.

**Kontratua egikaritzeko baldintza berezia**

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze baldintza berezi hau exijituko da:

**Izaera sozialdun baldintza berezia:**

Kontratu hau lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatu beharreko indarrean dauden lege xedapenak, arau xedapenak eta ohikoak betetzearen mende dago.

Lizitatuzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa zein izango den, kontratua esleituz gero.





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Era berean, Mankomunitateak kontratua egikaritzean langileei aplikatuko zaizkien laneko baldintzei buruz eskatutako informazio guztia emango du.

Esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ez da inolaz ere hori baino kopuru txikiagorik ordainduko.

### **Kontratuaren gehienezko lizitazio prezioa eta balioaren zenbatespena**

Lizitazio prezioa 7.300 euro, gehi 1.533 BEZ (%21), guztira 8.833 Euro.

### **Proposatutako esleipen irizpideak.**

Antolaketa orokorra: 30 puntu, gehienez. Programa osatzen duten lanen xehetasunaz erbitzua eta eragiketa garrantzitsuenak.  
Prezioa: 70 puntu

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da:

**LEHENA.** Elorregiko autobus geltokiko markesinan dagoen komun kimikoaren mantenuaren kontratazioari dagokionez, administrazio pleguak, plegu teknikoak eta gastua onartzea

**BIGARRENA.** Euskadiko Kontratazio plataforma iragarkia argitaratzea enpresek 15 eguneko epean eskaintzak aurkeztu ditzaten.

### **6.- Epele zabortegean atmosferara egindako gas emisio eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua EUROCONTROL, S.A. enpresari urte batez luzatzea onartzea.**

Epele zabortegean atmosferara egindako gas emisio eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua. Kontratista: EUROCONTROL, S.A.

Esp.zk: 104/2024





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

### IKUSIRIK

Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:

Mankomunitateak, 2020/10/01ean sinatu zuen EUROCONTROL, S.A. enpresarekin Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua zuen EUROCONTROL S.A. enpresarekin.

Kontratuaren iraupena:

Kontratu honen iraupena urtekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita, beste 4 urtez luzagarria gehienez ere 5 urte bete arte (2025/09/30 arte).

Eskaintako zerbitzuaren egokitasuna:

Orain arte EUROCONTROL, S.A. enpresak Epele zabortegian egindako gasen neurketa eta kontrol zerbitzua egokia izan da, berau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoaren arabera.

Txostenak:

- Idazkariaren lege txostena.
- Kontu-hartzailearen txostena.

Ingurumen Batzordeak 2024.06.10eko ohiko bilkuran adostutakoa:

2024.06.10eko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 6.puntuan, aho batez, Epele zabortegian atmosferara isuritako gas emisio eta inmisioak neurtu eta EUROCONTROL, S.A. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea adostu dute.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

### PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

Kontratua urtebetez luzatzea:

Epele zabortegian atmosferara isuritako gas emisio eta inmisioak neurtu eta EUROCONTROL, S.A. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2024.10.01tik 2025.09.30 arte.

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da EUROCONTROL, S.A. espresari urtebetez kontratua luzatzea.

**7.- Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinak jasotzeko edukiera desberdineko edukiontzien hornikuntza (2014). Berme itzulera onartzea Kontratista: ID WASTE S.L.**





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinak jasotzeko edukiera desberdineko edukiontzien hornikuntza (2014). Berme itzulera proposamena.**

Kontratista: ID WASTE S.L.

Exp.zkia: 35/2024

IKUSIRIK

Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:

Mankomunitateak, 2014/11/10ean ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinak jasotzeko edukiera desberdineko edukiontzien kontratuko 9 loteak esleitu zituen. Hauen artean 4 lote ID WASTE S.L. enpresari esleitu zitzaizkion (1, 2, 3 eta 4.loteak).

Kontratuaren iraupena:

Kontratu honen iraupena bi urtekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita, gehienez ere 2016/11/10 arte.

Berme ezarpenak eta iraupena:

Kontratu honen baitan, ID WASTE S.L. enpresak ondorengo bermeak ezarri zituen:

- 1. Lotea (10l-ko edukiontzien hornidura), 2.lotea (20L-ko edukiontzien hornidura) eta 4.lotea (60L-ko edukiontzien hornidura): 150 €, 350€ eta 875€ hurrenez hurren, guztira 1.375€.

- 3. Lotea (40l-ko edukiontzien hornidura): 450 €.

Berme hauen iraupena, horniduraz geroztik urtebetekoa da. Beraz, berme epea aspaldi agortua dago.

Kontratuaren exekuzioa:

10l, 20l, 40l eta 60l-ko edukiontzien hornidura kontratua zuzentasunez eskaini zuen ID WASTE S.L.

enpresak, berau arautzen zuten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoa jarraituaz. Berme epeak iraun zuen bitartean hornitutako edukiontziek ez zuten inongo kalitate arazorik izan.

Txostenak: - Idazkari-kontuhartzailearen txostena.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

### PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

Bermea itzultzea:

ID WASTE S.L.-ak 10l, 20l, 40l eta 60l-ko edukiontzien hornidura kontraturako jarritako bermeak itzultzea proposatzen da.

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0







## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Beraz, aho batez onartzen da Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinak jasotzeko edukiera desberdineko edukiontzien hornikuntza Kontratua dela eta (2014). Berme itzulera onartzea Kontratista: ID WASTE S.L.

### **8.- Etxeko olioak bildu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresari urte batez luzatzea onartzea.**

Etxeko olioak bildu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua. Kontratista: ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L.

Esp.zk: 100/2024

IKUSIRIK

Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:  
Mankomunitateak, 2021/09/27an erabilitako etxeko hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua sinatu zuen ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresarekin.

Kontratuaren iraupena:

Kontratu honen iraupena hiru urtekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita, eta beste urtebetez gehiagoz luzagarria, gehienez ere 4 urte bete arte (2025/09/27 arte).

Eskainitako zerbitzuaren egokitasuna:

Orain arte ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresak etxeko olioak bildu eta kudeatzeko eskainitako zerbitzua egokia izan da, berau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoaren arabera.

Txostenak:

- Idazkariaren lege txostena.
- Kontu-hartzailearen txostena.

Ingurumen Batzordeak 2024.06.10eko ohiko bilkuran adostutakoa:

2024.06.10eko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 2.puntuan, aho batez, etxeko olioak bildu eta kudeatzeko, ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea adostu dute.

Puntua bozkatzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen dute Etxeko olioak bildu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresari urte batez luzatzea.







## DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

### 9.- Papera eta kartoia saltzeko kontratua ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.L. enpresari urte batez luzatzea onartzea.

**Papera eta kartoia saltzeko kontratua luzatzeko proposamena (2022.09.30-2023.09.30). Kontratista: ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.A..** Mankomunitateak, 2017ko irailaren 25ean, edukiontzi urdinetan, atez-ateko bilketetan, komertzio eta industrietako kartoi bilketan eta Garbiguneetan bildutako papera eta kartoia saltzeko kontratua sinatu zuen ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.A. enpresarekin. Kontratu honen iraupena urtebetekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita eta, bi aldeen adostasunez, beste 7 urte gehiagoz luzagarria, gehienez ere 8 urte bete arte. Orain arte ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.A. enpresak eskainitako papera eta kartoia erosteko zerbitzua egokia izan dela kontuan hartuz, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren proposamena kontratua hau beste urtebetez luzatzea da, 2022.09.30tik 2023.09.30 arte.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da Papera eta kartoia saltzeko kontratua ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.L. enpresari urte batez luzatzea.

### 10.- Plastikoa kudeatzeko zerbitzu kontratua BAÑU-ETXE, S.L. enpresari urte batez luzatzea onartzea.

**Plastikoa kudeatzeko zerbitzu kontratua. Kontratista: BAÑU-ETXE, S.L. Esp.zk: 102/2024**

**IKUSIRIK Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:** Mankomunitateak, 2022/09/15ean garbiguneetan eta Debagoieneko Mankomunitatearen beste bilketa zerbitzu batzuetan jasotako plastikozko hondakinak kudeatzeko kontratua sinatu zuen BAÑU-ETXE S.L. enpresarekin. **Kontratuaren iraupena:** Kontratu honen iraupena urtebetekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita eta, beste 4 urte gehiagoz luzagarria, gehienez ere 5 urte bete arte (2027/09/15 arte). **Eskainitako zerbitzuaren egokitasuna:** Orain arte BAÑU-ETXE S.L. enpresak plastikozko hondakinak kudeatzeko eskainitako zerbitzua egokia izan da, berau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoaren arabera. **Txostenak:** - Idazkariaren lege txostena. - Kontu-hartzailearen txostena.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da Plastikoa kudeatzeko zerbitzu kontratua BAÑU-ETXE, S.L. enpresari urte batez luzatzea.

### **11.Hondakin metalikoen (txatarra) bilketa eta salmentarako kontratua. NAPARRA BERGARA S.L.U. enpresari urte batez luzatzea onartzea.**

#### **IKUSIRIK Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:**

Mankomunitateak, 2018/09/01ean garbiguneetan eta Debagoieneko Mankomunitatearen beste bilketa zerbitzu batzuetan jasotako hondakin metalikoen (txatarraren) bilketa eta salmentarako kontratua sinatu zuen NAPARRA BERGARA S.L.U. enpresarekin.

**Kontratuaren iraupena:** Kontratu honen iraupena 2 urtekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita eta, urtero luzatu zitekeen, gehienez ere 8 urte bete arte (2026/08/31 arte).

**Eskaintako zerbitzuaren egokitasuna:** Orain arte NAPARRA BERGARA S.L.U. enpresak txatarra jaso eta erosteko emandako zerbitzua egokia izan da, berau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoaren arabera. **Txostenak:** - Idazkariaren lege txostena.

**Ingurumen Batzordeak 2024.06.10eko ohiko bilkuran adostutakoa:** 2024.06.10eko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 5.puntuan, aho batez, hondakin metalikoak (txatarra) jaso eta saltzeko NAPARRA BERGARA S.L.U. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea adostu dute. Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

#### **PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI**

**Kontratua urtebetez luzatzea:** Hondakin metalikoak (txatarra) jaso eta saltzeko NAPARRA BERGARA S.L.U. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2024.09.01tik 2025.08.31 arte.

Puntua bozkatzen dute eta hemen emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0





Abstentzia: 0

Beraz, aho batez onartzen dute Hondakin metalikoen (txatarra) bilketa eta salmentarako kontratua. NAPARRA BERGARA S.L.U. enpresari urte batez luzatzea.

**12.- Ivan Torres De la Torre ekintzailerari (Oceanna ondasun erkidegoa) Arrasateko 2-IM modulua erabiltzeko sei hilabeteko luzapena onartzea.**

Puntua bozkatzen dute, eta hemen emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzia: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 12. puntua.

**13.- Danel iriarte Azpiazu ekintzaileari (Erabat Digital) Arrasateko 4-ZM moduujlue erabiltzeko urte bateko luzapena onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzia: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 13. puntua.

**14.- TGAnet datu kudeaketa egiteko zerbitzuari dagokion kontratua Behargintza Txorierrri S.L. enpresari urte batez luzatzea onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu, Garikoitz Iturbe, Izaro Elorza.

Kontra: 0





## DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

Abstentzia: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 14. puntua.

### 15.- Galdera eskaerak.

Ez dago.

,

Bilera bukatutzat ematen da 12:50etan, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2024ko ekainaren 20an

**Lehendakaria**

**Idazkari-kontuhartzailea**

